

txintxarri



Bost gizon, helburu bakarra

Udal hauteskundeetan atarian, Lasarte-Oriako alkategaiak elkarriketatu ditu TXINTXARRI-k



Zurekin
LASARTE-ORIA
gara

Zatoz
**kanpaina amaierako
festara!**
MAIATZAK 24, 19:00etan
Okendo plazan

ehbildu

"Bi aukera daude: guk gobernatzea, edo EH Bilduk"

JESUS ZABALLOS PSE-EE-KO ALKATEGAIA

Emaitza onak lortuko dituela ziur da hautagai sozialista: "Alderdiko inkesten arabera, gehiengo osoa lor dezakegu". Bere taldearen kudeaketarako gaitasuna goraiatu du

Adrian Garcia

Gaztea izanagatik, eskarmentu handia du politikan Jesus Zaballosek (1982, Zarautz). 2007an hartu zuen zinegotzi akta, baina Ana Urtxuegiaren afera dela-eta alkatetza hartu zuen urtebetez 2011n. "Tarte hori kontuan hartzen ez badugu, esan daiteke soilik lau urtez izan naizela alkate, 2015etik aurrera". Hirugarren aldiz aurkeztuko da maiatzaren 26an udal hauteskundeetara. "Herriarrek nigan jarri duten konfiantzak bultzatzen nau aurkeztera.

Gainera, legealdi honetan martxan jarri ditugun proiektu garrantzitsu asko jarraitu behar ditugu: kiroldegia eta Atsokabarreko pistak, esaterako".

Gazte sartu zinen politikan. Zerk bultzatu zintuen?

Betidanik izan dut gogoia alderdi sozialistan militatzeko, baina mehatxu terrorista zela eta, amak atzera eginarazi zidan. Oinarrietan izen eman nuen hasieran, eta handik sei hilabetera PSE-EE alderdian. Beti gustatu izan zait besteen

alde lan egitea, gauzak aldatzeagatik borrokatzea.

Udalerritik kanpo politikan ibilbidea egiteko anbiziorik ba al duzu?

Ez. Uste dut politikagintzan denbora gutxi egon behar dela, askotan nahasteko arriskua egon daitekeelako; herriarren zerbitzura gaude gu, eta ez alderantziz. 2015ean aukera banuen eusko parlamentari bezala jarraitzeko, baina soilik alkate izatea erabaki nuen. Udal politika gustatzen zait, gertukoia delako. Zure lanaren emaitzak zuk zeuk ikusten dituzu. Niretzat

garrantzitsua da formatzen jarraitzea, badakidalako politika utzi egingo dudala. Uste dut 2023an ez naizela aurkeztuko.

Maiatzako hauteskunderi begira, zein da PSE-EEren helburua? Egun zazpi zinegotzi dituzue.

Nire helburua da herriarrek alderdi sozialistan konfiantza jartzea, eta uste dut posible dela zinegotzi bat gehiago irabaztea. Lau urtetan lan ona egin dugu, hauteskunde programa ia guztia bete dugu; %93. Baina demokrazian dena posible da: irabazi ditzakezu hauteskundeak, eta gero ez gobernatu. 2011n gertatu zitzaigun. Bi aukera garbi daude Lasarte-Orian: PSE-EEK gobernatzea, edo EH Bilduk lortzea alkatetza, Podemos eta EAJren laguntzarekin. Herriarrek alderatu dezatela bata zein bestearen kudeaketa, eta horren arabera bozka dezatela.

2015ean oposizioa ez zen ados jarri PSE-EEri alkatetza kentzeko. Oraingoan gerta daitekeenaren susmoa duzu?

Aukera guztiak hartzen ditut kontuan. Egia da 2011n desberdina zela, beste giro bat zegoen. Lehenengo emaitzak ikusiko ditugu, gero alderdien artean hitz egingo dugu, eta ekainaren 15ean udalbatzarra eratzten denean jakingo dugu zer gertatzen den.

Enpleguaren alorrean jarri duzue indar asko. Zein da egun Lasarte-Oriaren egoera alor horretan?

2015ean, gobernu hartu genuenean, egoera oso txarra zen. Ez da EH Bilduren errua, herrialde osoan zegoen egoeraren eragina zen. %16ko langabezia tasa zegoen, eskualdeko altuena. Egun %8ra jaitsi da. Ez bakarrik udalaren lanarengatik, baita ere eskualdean egin denari esker. Helburu nagusia izan behar du eskualdeko garapen agentzia sortzea. Hastapenak egin ditugu sei udalerririk legealdi honetan, eta hurrengoan eratu behar dugu. Agentzia horren bidez martxan jarriko dira enplegu aukera asko, herriko merkataritza sortzeko laguntzak, desgaitasunen bat dutenentzako lanak...

Horrez gain, Michelin II gunea eta Leroy Merlin proiektuak martxan daude.

Michelin II gunean Lidl, hiru izardun hotel bat, Norauto eta gasolindegia bat eraikiko dituzte. Leroy Merlinekin batera, 200 bat lanpostu sortuko dituzte,

oso beharrezkoak Lasarte-Oriarentzat.

Nola eragingo die proiektu horiek herriko merkataritza txikiari? Ez al ditu arriskuan jarriko?

Gauza batek ez du bestearekin zerikusirik. Denbora honetan guztian ez da enplegurik galdu herriko merkataritzan. Lasarte-Oria da herriko merkataritza gehien sustatzen duen eskualdeko udalerrria. Aterpea da diru laguntza gehien jasotzen duen merkatarien eta ostalarien elkarte. Desberdintasun argi bat dago; herriko dende *Tratu on bat* markaren bidez gertuko harremana sustatu behar dute. Michelin II gunek ez die lehiarik ekarriko herriko negozioei.

Leroy Merlinek lehia zuzenagoa eragingo die.

Herriko denden gertuko tratua ezin dute lehiatu saltoki handiek. Denda txikiak harreman zuzenagoa dute bezeroarekin, arreta hobea eskaintzen dute. Hain zuzen, horixe ari gara indartzen *Tratu on bat* markarekin. 8.000 eurotik 35.000ra igo dugu Aterpearen diru laguntza, herriko merkataritza bultzatu nahi dugulako.

Zubietako erraustegia martxan jartzekotan dira. Errausketaren aurka ez, baizik eta erraustegia Zubietan jartzearen aurka agertu zarete.

Ni alderdi sozialistakoa naiz, baina nik Lasarte-Oriako herriarren interesen alde egiten dut lan. Eta herriarrek ez dute erraustegirik nahi Zubietan. Nire alderdiak babestu du erraustegia hortxe jartzea, baita Gipuzkoako hondakinen plana ere. Ingurumen diputatuta [Jose Ignacio Asensio] nire alderdikoa da, eta, halere, Lasarte-Oriako Udalak bere esku zuden aleggazio guztiak egin ditu.

"GURE INKESTAK ONAK DIRA. GEHIENGO OSOA LOR DEZAKEDALA ESATEN DIT ALDERDIAK"

"HERRIKO DENDEN GERTUKO TRATUAREN AURKA EZIN DUTE LEHIATU SALTOKI HANDIEK"



Jesus Zaballos, asteazkeneko merkatuan, arrosak banatzen. TXINTXARRI



Hirugarrenez, eta haren arabera, azkeneko aldiz, aurkeztuko da Zaballos alkatetzara. TXINTXARRI

Udalak goi tentsioko linea jartzeko baimenak eman ditu.

Hori egitea beste erremediorik ez genuen; haiek horretarako eskubidea dute, eta uko egin izan banio, prebarikazioa zatekeen.

Eskualdeko birziklapen tasa baxuena du Lasarte-Oriak, %48 baino gutxiagokoa. Horiek hobetzeko neurririk jasotzen al du PSE-EEren programak?

Jendea kontzientziatzen joan behar dugu pixkanaka-pixkanaka. Horregatik jarri ditugu zerga hobariak; tamalez, poltsikoa ukitzen badiezu azkarrago kontzientziatzen dira herritarrak. Bosgarren edukiontzia erabiltzen dutenek izango dute hobari hori. Sentsibilizazio kanpainak egingo ditugu. Bosgarren edukiontzia erabiltzen ez duten etxebizitzetara deituko dugu, horiek konbentzitzen saiatzeko.

Zer birziklapen tasa helburu jarri duzue hurrengo urteetarako?

Ordenantza fiskaletan ezarrita dago. 2019rako %48 izan behar du; 2020rako %50, Europako zuzentzaruek agintzen duten

bezala; eta gero, urtero %1 nahi dugu igotzea. Igoera kontzientziarioaren arabera izango da. Horregatik da garrantzitsua ikastetxeetan gaia lantzea.

Euskararen inguruan erreferentzia da Lasarte-Oria ekimen askotan, hala nola, Euskararen Maratoia, Euskaraldia, Udaltop... Gobernatzen baduzue, Euskara Zerbitzua beste alderdi bati utziko diozue kudeatzen?

Beste alderdi bateko zinegotzia Euskara Zerbitzuko buru izateak ez du esan nahi alderdi sozialistak euskarari arreta jartzen ez dionik. Azken finean, den-dena pasatzen da alkatearen eskutik, dekretu guztiak sinatzen ditu alkateak, sail guztietakoak. Euskara Zerbitzua oztopatu nahi izango balu alderdi sozialistak, ez nituzke dekretuak sinatuko. Ez da egia beste alderdiei esker aurrera egin duenik Euskara sailak. Oso indartsua da teknikoki, eta alderdi guztien kontsentsua du egiten dituen lanetan. Teknikoek egiten dute lana; haiek proposatutakoa adosten da batzordean.

Erreferentzia bagara euskararen alorrean, alderdi guztien adostasunari esker da. Ikurrina eta euskara denon ondasuna dira, ez soilik alderdi jakin batzuenak. Euskararen Bidegorria udalean sortu zen zinegotzi sozialista bat zegoela Euskara Zerbitzuen buru: Iñaki Mujika. **Euskara Zerbitzua zuzentzeko hautagai gisa aurkeztu duzu Iñigo Zabaleta, baina bederatzigarren tokian doa. Zaila izango du eserlekua lortzea.**

Gure inkestak onak dira. Ez dakit alderdian adarra jotzen ari zaizkidan, baina esaten didate gehiengo osoa irabaz dezakedala. Bederatziko talde bat egin dut; sail guztiak banatu ditut nire lankideen artean. Horregatik sartu dut gaitasun handiko jendea zerrendaren lehen zatian. Gero ikusiko ditugu emaitzak. Bederatzi ateratzen badituzte, departamentu guztiak gidatuko ditugu. Zortzi badira azkenean, beste talderen batekin osatu beharko dugu gehiengoa, eta negoziatu beharko dugu. Orain EAJrekin egin dugun bezala; ez

da gobernu hitzarmen bat, baina bai egonkortasunezkoa.

Udal Musika Eskolaren egoera kaskarra salatu dute gurasoek, ikasleek eta irakasleek. Zein neurri dituzue buruan hurrengo legealdirako?

Musika Eskolako batzordea martxan jarriko dugu; orain arte ez da ezarri. Horrek proposatuko ditu konponbideak. Instrumentu gehiago irakastea bultzatuko dugu, esaterako, perkusioa. Irakasle gehiago

"AHALEGIN GUZTIAK EGIN DITU UDALAK ZUBIETAKO ERRAUSTEGIAREN AURKA"**"EUSKARA ZERBITZUA EZ KUDEATZEAK EZ DU ESAN NAHI EUSKARARI ARRETA JARTZEN EZ DIOGUNIK"****Gertutik****Liburu bat?**

Patria (Fernando Aranburu).

Filme bat?

Los Otros (Alejandro Amenabar).

Zaletasun bat?

Gitarra jotzea, pintatzea eta irakurtzea.

Pertsona erreferente bat?

Nire ama.

Herriko txoko kuttuna?

Oriako Brunet parkea.

kontratatuko ditugu, eta instrumentu gehiago erosi. Espazio aldetik arazoak ditugu, horregatik gure apustua da eskola kultur etxetik ateratzea, eraikin berri batera. Horrela, liburutegia handitu genezake. Musika banda bat sortzea ere bultzatuko dugu, gurasoek eskatu bezala.

Gero eta biztanle gehiago ditu Lasarte-Oriak. Haietzako zerbitzuak ere hobetu beharko dira.

Lasarte-Oriak 18.500 biztanle ditu oraintxe bertan, baina litekeena da laster 20.000 baino gehiago izatea. Horregatik zerbitzuak kopuru hori kontutan hartuta eskaini behar dira. Adibidez, kiroldegi berria biztanle kopuru hori aintzat hartuta eraikiko da.

Bizikidetzaren alorrean aurrerapausoak eman dira azken legealdietan. Bide horretan urrats gehiago egitea aurreikusten duzue?

Aurrera egin dugu, baina ez behar bezainbeste. Bizikidetzaren Mahai bat dago udalean, baina alderdi batzuek moteldu egin dute funtzionamendua. Giza eskubideen urraketen txostena argitaratu genuen. Behin txostena eginda, hasi beharko genuke urraketa mota guztiak aztertzen, eta biktima horiei aitortza egiten, biktima guztiak errekonozituak izan daitezken. Orain tratatuta gaude, eta arazo bat dugu. Udalbatzar berri bat osatuko dugu, eta jende berria hasiko da lanean, zinegotzi berri asko egongo dira. Espero dut hutsetik ez hasi behar izatea, eta orain arte egindakoari segida ematea. Hain zuzen, EH Bilduz ari naiz; berriak izango dira zinegotzi guztiak.

Adrian Garcia

Michelingo langilea, urte askoan LABeko sindikalista, Jon Martinek (Lasarte-Oria, 1976) jauzi handia eman du aurten, udal politikagintzako lehen lerrora. PSE-EEkoa izan ez den alkate bakarraren testigua hartu du, Pablo Barriorena, hark orain zortzi urte lortutakoa errepikatzeke helburuarekin. "Irabaztera aterako gara". Maiatzaren 26ko bozen garrantziaz ohartarazi du zerrendaburuak. "Plan urbanistikoa onartuko dira. Lasarte-Oriaren herri eredia jokoan dago".

Lehendik ere izan zara EH Bilduren eta ezker abertzalearen zerrendetan. Zerk bultzatu zaitu aurten zerrendaburu gisa aurkeztera?

Herriaren aldeko gure proiektuak beharrezkoa du udalean isla izatea. Urteetan herriko bizitza sozio-ekonomiko-politikoan murgilduta egon naiz, eta modu naturalean hartu dut erronka. Gogoz eta ilusioz heldu diot.

Deigarria da EH Bilduko zerrenda goitik behera berria dela; aurreko legealdiko zinegotziek ez dute jarraituko. Esperientzia falta horri nola egingo diozue aurre?

Eguneroko funtzionamenduari begira berriak gara, eta ikasten joango gara. Herrigintzak hori du; ez gara politikari profesionalak, gure herria kudeatzeko konpromisoa hartu dugun herritarrek gara. Errelebo osoa modu naturalean egin dugu. Horrek erakusten du EH Bilduk Lasarte-Orian duen ezarpena, eta haren inguruan dabilzan herritarren konpromisoa. Oso argi dugu udalarentzako zer nahi dugun, eta horrek indarra ematen digu. Ez dugu arazorik izango kudeatzeko; oso talde prestatua dugu, eta ibiliak gara kudeaketan. Berrikuntza positiboa da.

2015ean galdu zuen alkatetza EH Bilduk. Azken lau urteetako balantzea zein da?

Oposizioko buru izan gara, udal gobernuari kontrol lan zorrotza egiteaz gainera, hainbat proposamen ere egin ditugu. Gobernuaren balantzea erraza da laburbiltzen: anbizio falta nabarmena du. Inertziatz gobernatu du azken lau urteetan.

Adibidez?

Sozio-ekonomikoki desastre hutsa izan da, korronteak gidatuta jardun du. Michelingo lurretan ikusi dugu. Kontrajarriak diren



Jon Martin, udal txerriaren burua. TXINTXARRI

"Jokoan dago herri eredia; udalean indarra egin behar dugu"

JON MARTIN EH BILDU-KO ALKATEGAIA

"Naturaltasunez" hartu du lekukoa LABeko sindikalistak. Alderdiak kudeaketan eskarmentua duela oroitarazi du, eta ez ditu beste alderdiekin itunak baztertzeko

bi proiektu ikusiko ditugu lur horietan. Usurbilgo zatian Gipuzkoako kapitala duten bi enpresa jarriko dituzte, Gureak eta Elkar, 1.000 lanpostu sortzeko. Batak euskararen inguruan lan egiten du, eta besteak aniztasun funtzionala dutenekin; balio erantsia ekarriko dute. Bestalde, Lasarte-Orian, Michelin II gunean *low cost* supermerkatu, taller eta gasolindegia bat eraikiko dute, janari azkarra zerbitzatuko duen jatetxe bat. Iniziatiba duen

gobernu batek herriaren hobe beharrez bestelako proiektu bat eduki beharko zukeen. Baina enpresa batzuen mesedetan ari dira.

Herri eredia hurrengo urteetan erabakiko dela diozu.

Hurrengo legealdian arau subsidiario berriak onartuko dira. Hartuko diren erabakiek zehaztuko dute zer eraiki ahal izango den herrian datozen hamarkadetan. Oinarrizkoa da hori. Hori aurrera eramateko,

garrantzitsua da Lasarte-Oriako EH Bildu indartsu egotea udalean. Udalak bultzatzen duen herri eredia tamalgarria da. Zerbitzurik gabeko lo auzoak landa eremuan, errepide onak Donostiarekin lotzeko; merkataritza gune handiak gure inguruan; erraustegia, espetxea, kuartela Zubietan... Argazki orokorra kezkarria da. Herritar bezala, zer etorkizun ari zaizkigu marrazten udalean eta aldundian dauden alderdiak? Negozioa dute

ardatz, herritarren kaltetan, eta eliteen mesedetan. Kontran, gure proiektuak herritarrek jartzen ditu erdigunean; bakarrak gara herritarren interesak defendatzen, beste batzuk isilik dauden bitartean.

Gaur egun EH Bilduk lau zinegotzi ditu. Zein helburu duzue hauteskondeei begira?

Gu irabaztera ateratzen gara beti. Horretarako, sekulako lantaldea prestatu dugu. Erakutsi dugu gai garestuak kudeatzeko, eta gainerako alderdiekin ados jartzeko, Lasarte-Oriaren mesedetan. Gero lasarteoriatarrek bakoitza bere lekuan jarriko dute, baina anbizio guztia daukagu gure.

2011n bezala alkatetza eskuratzeko oposizio alderdiak bat egitea posible ikusten duzu?

Ez dugu ezer baztertzeko. Herri honen garairik onena izan da ezberdinen artean ados jarri eta denon artean udala kudeatu genuenean. Eta horrek ekarri du lasarteoriatarren artean elkar ezagutzeko, elkar lanean aritzea, eta herriaren izaera eraikitzea. **Michelin II guneaz gain, Leroy Merlin ere eraiki behar dute. Herriko komertzioak kezkatuta daude.**

Belartza II ere hor dago. Oso kezkatuta gaude. Alderdi batzuen proiektua da Lasarte-Oria hiriburuaren aldiria bat bihurtzea. Eta inguruan sortuko diren saltoki handiek ez dute laguntzen herriaren idiosinkrasia eta nortasuna eraikitzen. Denda txikiak Lasarte-Oria bizi baten odola dira, bizirik jarraitu ahal izateko ezinbesteko organoa. Asko sufritu dute, eta ikusten ari gara etorkizunean ere gehiago sufritu behar dutela. Komertzio txikiaren aldeko gure apustua argia da.

Zer neurri proposatzen dituzue dendariak babesteko?

"GARAIK ONENA IZAN DA EZBERDINEN ARTEAN ADOS JARRI ETA UDALA KUDEATU GENUENEAN"

"LO AUZOAK, SALTOKI HANDIAK, KUARTELA, ERRAUSTEGIA... ARGAZKI OROKORRA KEZKAGARRIA DA"

Gertutik

Liburu bat?

Aubrey & Maturin bilduma (Patrick O'Brian).

Filme bat?

Kill Bill I eta *II* (Quentin Tarantino).

Zaletasun bat?

Lagunekin korrika saioak egitea.

Pertsona erreferente bat?

Rafa Diez.

Herriko txoko kuttuna?

Tren-txikiko zonaldea.

Neurriak haiekin batera hartu beharko ditugu, haiek ordezkatzen dituzten elkarteekin. Herrian bertan kontsumitzera bultzatzeko kanpainak egin beharko dira, eta bestelako neurriak hartu hirigintza alorrean. Erabat hipokrita da herri komertzioak sustatu nahi izatea, eta, era berean, saltoki horiek ezartzeko proiektuak martxan jartzea.

Enplegua sortzeko neurri gisa saldu dituzte proiektu horiek. Zuek zer neurri dituzue buruan langabeziaren aurka egiteko?

Pertsonak ekonomiaren erdigunean jarri behar ditugu. Proiektu horiek prekaritate sortzen dute, suburbio izaera hori indartzeko. Sozio-ekonomian bi alderdi indartu nahi ditugu. Batetik, zero kilometroko filosofiarekin, bertako enpresak eta ekoizleak bultzatu nahi ditugu, haien produktuak saltzeko espazioak sortzeko. Horrez gain, proiektu zabalagoak ere behar ditugu, eta hor eskualdearen aldeko apustua egiten dugun.

Garapen agentzia martxan jartzeko lehen urratsak egin dira.

Beste tokietan egin dira proiektu interesgarriak, baina udalaren utzikeriagatik ezin izan dira egin hemen. Beharrezkoa dugu garapen agentzia, Lasarte-Oriak lurrik ez duelako. Zeuzkan eremu industrial apurrak saltoki handi bihurtuko dituzte. Bada adibide garbi bat: Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan autobus elektrikoaren inguruko proiektu bat ezarriko du, MUBIL zentroa. Proiektu horrek lekua bazuen Michelin II gunean, eta ongi ezkontzen zen parean izango



Jon Martin, asteazkeneko EH Bilduren ekitaldian, Okendon, Maddalen Iriarte eta Juan Karlos Izagirrenen begiradapean. TXINTXARRI

zukeen pneumatiko enpresarekin. Hor jarri zatekeen polo indartsu bat, lanpostuak sortuko zituzkeena. Non dago gure gobernua Lasarte-Oriarentzako garrantzitsuak diren inbertsioak erakartzeko? Ez ahaztu haien alderdia foru gobernuan dagoela.

Laster jarriko dute martxan erraustegia. Udaletik zer egin daiteke ondorio kaltegarriak saihesteko?

Onartezina da Lasarte-Oriak eskualdeko birziklapen tasa baxuena izatea. Eta hori ez da kasualitatea. Erraustegiaren aldeko politikak egiten dira udaletik; martxan jartzeko, jaten eman behar zaio erraustegiari. Lehenbiziko urratsa da birziklapen tasa handitzea, eta helburu horiek lortzeko neurri zuzentzaileak jarri beharko dira, denon adostasunarekin. Baina ezin dugu egungo birziklapen tasa honekin jarraitu.

%48ra ez da iristen birziklapen tasa. Udaletik zein neurri hartu daitezke hori igotzeko?

Datozen lau urteetan tasa %75era igo nahi dugu, eta, horretarako, hainbat neurri zuzentzaile proposatuko ditugu. Zein neurri

hartuko genituzkeen? Zerbaitek ongi funtzionatuko badu, adostasunetik hartutako erabakia izan behar du. Horretarako, helburuetan bat egin beharko genuke. Helburua behin jarrita, neurri asko hartu daitezke horretara iristeko. Gipuzkoan eredu asko jarri dituzte martxan. **Lasarte-Oriaren bizitza kultural handia dago, oso anitza. Nolako izan behar du elkarlanak udalaren eta eragileen artean?**

Herri gutxi egongo dira Gipuzkoan Lasarte-Oriako bizitza

"KULTUR ERAGILEEK, UDALAREKIN BATERA, KULTUR POLITIKA PROPIOA ERAIKI BEHAR DUTE"

"ONARTEZINA DA LASARTE-ORIAK ESQUALDEKO BIRZIKLAPEN TASA BAXUENA IZATEA"

kultural anitzarekin. Hortaz, udaletik ahalegin indartsua egin beharko litzateke elkarte horiek ahalduzko, eta haiei ere kudeaketa gaitasun bat emateko. Horren inguruan badauzkagu adibide esanguratsuak: Azpeitiko San Agustin gunea, Gernikako Astra edo Oñatiko Eltzia. Eredu horien alde egin nahiko genuke, betiere, parte hartzeari garrantzia ematen. Beharrezkoa da kultur eragile guztiek, udalarekin koordinatuta, kultur politika propioa eraikitzea. Autokudeaketa maila altua behar dute.

Nabarmena da kultura azpiegiturak ere falta direla.

Kultura azpiegiturak zaharkituta geratu dira, eta ez diote erantzuten herriaren beharrei. Musika eskola txikia geratu da, liburutegia ere... Kultur etxea bera dago txikia. Espazio berrien sorrera landu behar dugu, kultur eragileen eta herritarren beharrei erantzuteko.

Bizikidetzan urrats asko egin dira azken legealdietan. Zer beste pauso eman beharko litzuke udalak?

EH Bildu izan zen gai hau plazaratzen lehenengoa, udaletik

modu ofizialean horren aldeko lana sustatzen. Bide horretan sakondu behar da. Hori bai, guk beti daukagu presente herritarrekin egin beharreko bidea dela, denei eskubide berberak aitortuta, etorkizunari begira. Biktima guztiek behar dute erreparazioa eta berriz gertatuko ez denaren bermea.

Kirolegia egiteko prozesua martxan jarri du udalak. Zer iritzi du honen inguruan EH Bilduk?

Lau urteko atzerapenarekin dator proiektua. Aurreko legegintzaldian egin zegoen lana: taxuzko ikerketa bat, ikusteko zeintzuk ziren kirol elkarten eta herritarren beharrak. Duela lau urteko programan aurreikusten genuen proiektua aukeratzea eta gauzatzea, parte hartze prozesua egin ondoren eraikitzen hasteko. Baina lau urte pasatu dira, eta ez da ezertxo ere egin. Ez dute lau urtean ezer egin, eta orain korrika eta presaka martxan jarri dute prozesua. Egungo kiroldegiak ez ditu beharrak asetzen, eta kiroldegi berri bat behar da.

"Hiru zinegotzi izan arren, erabaki askotan eragin dugu"

DAVID ARES ELKARREKIN PODEMOS-EKO ALKATEGAIA

Ezkerreko eta herri eredu antzekoa duten alderdiekin gobernuan sartzeko prest da Ares. Gardentasuna eta parte hartzea indartu nahi ditu Elkarrekin Podemosek



Primarioak irabazita zerredaburu aurkeztu da Ares. TXINTXARRI

Adrian Garcia

Lau urte daramatza David Ares (1983, Donostia) udalean lanean. Elkarrekin Podemosek egindako "lan ona" jarraitzeko, zerredaburu aurkeztuko da maiatzaren 26ko hauteskundeetan. "Erabaki garrantzitsuetan eragitea lortu dugu". Kazetaria lanbidez, Lasarte-Oriako Podemoseko zirkulura gerturatu zen taldea osatzen ari zirenean. "Baliadun pertsonak zirela ohartu nintzen; konturatu gabe ia, inplikatzeko hasi nintzen, eta barruan sartu nintzen". Alderdiko primarioak irabazi zituen otsailean.

Nolakoa da azken lau urteetako zuen balantzea?

Erabaki garrantzitsuetan eragin dugu, eta gauza asko lortu ditugu. Tartean, Basaundi bailarako berrurbanizazioa eta Atsokabar zaharren egoitza aldundiari uztea. Gardentasuna eta parte hartzeari dagokionez, aldaketak eta aurrerapausoak lortu ditugu; lehen aurrekontu parte hartzaileak egin dira, gure proposamen bati esker. Parte hartzeari buruzko araudia ere bultzatu dugu, eta gure zuzenketa ia guztiak onartu dituzte. Hiritarren bulego mugikorra ere jarri da; erreklamazioei erantzuteko epea erdira laburtu dugu; eta udal gobernuaren utzikeriari aurre egin eta udalbatzarrak *streaming* bidez ematea lortu dugu, hasieran gure baliabide propioekin. Soilik hiru zinegotzi edukitzeko, oso lan eraginkorra egin dugu.

Gai garrantzitsuetan, ordea, asko jo duzue abstentziora.

Arrazoi oso justifikatuak egon daitezke abstenitzeko. Gai jakin bati buruz ez badaukagu informazio osoa, eta erabaki bat azkar hartu behar denean, une horretan agian ez dugu ezagutza nahikorik alde edo kontra bozkatzeko. Beti saiatzen gara jarrera bat hartzen, baina ez zaigu ondo iruditzen itsu-itsuan hartzea erabaki horiek.

Udal gobernuaren zein balantze egiten duzue?

Gauza asko egin ditu udal gobernuak; gehienekin ez gaude ados. Gauza oso ikusgarriak egiten ditu: kaleak asfaltatu, etxebizitzak eraiki... Beste alde batera utzi dituzte beste gai batzuk, ez horren ikusgarriak, baina bai garrantzitsuak: kulturaren babesa, gardentasuna...

Hiru zinegotzi dituzue orain. Zein helburu dituzue hauteskundeetara begira?

Aurreikuspen onak ditugu; hauteskunde orokorretan bigarren indarra izan ginen, eta uste dugu hiru zinegotzietara eutsiko diegula; agian beste bat gehiago lor dezakegu. Azken urteetan irabazitako espazioa egonkortu nahi dugu; herritarren zati handi bat ordezkatzeko, hain zuzen, beste ezein alderdi politikok ordezkatzeko ez duena. Herria hobetu dezakegu, zintzo lan egiten, eta gure gidalerroak jarraitzen: gardentasuna, parte hartzea, feminismoa eta kudeaketa arduratsua.

Nola dira zuen harremanak beste alderdiekin. Aukera ikusten duzue koalizioko gobernu batean sartzeko?

Bai, noski. Aukera badugu gobernu osatzeko, konpromiso hori hartuko dugu. Herriarekiko ditugun proposamenak eta gure herri eredu ezartzeko, eraginkorragoa da gobernu barrutik egitea. Ez dugu ezer zehazturik, baina ezkerreko edo herri eredu antzekoa duten alderdiekin egin dezakegu ituna.

Kezkatzen al zaitu Podemosek orokorrean duen beherazko joerak?

Bai, kezkarria da. Makinaria mediatikoak min asko egin dio, gezur asko esan dituzte alderdiari buruz. Barne kudeaketan ere ez da asmatu, barne gatazkak aireratzeko min egin digu. Gutxienez, Euskadin emaitzei eustea lortu da, eta Lasarte-Orian ere emaitza txukunak izan dira.

Zein da Lasarte-Orian enpleguaren egoera? Zein neurri aurreikusten dituzue lanpostuak sortzeko?

Datu ofizialen arabera, 800 bat langabe daude, baina gehiago egon daitezke, Lanbiden izena eman gabe egongo dira eta asko. Joera beheranzkoa da, baina, halere, biztanleria kontuan

"GARDENTASUNA, PARTE HARTZEA ETA FEMINISMOA DIRA HERRIA HOBETZEKO GURE GIDALERROAK"

"EH BILDUK SALTOKI HANDIAK KRITIKATU, BAINA BESTE HERRIETAN EZARTZEN DITU HORRELAKOAK"



Elkarrekin Posemoseko hautagaia, merkatu egunean eskuorriak banatzen. TXINTXARRI

hartuta, kopuru altua da. Enplegua ez da udalaren eskumena, baina gauza asko egin daitezke: herriko enpresak eta komertzioak lagundu, herritarren kontratazioa bultzatu, Eusko Jaurlaritzarekin eta aldundiarekin inbertsioak hitzartu balio erantsia duten enpresak erakartzeko... Guretzat enplegu berdea etorkizuneko apustua da.

Bi proiektu bultzatu dituzte udaletik: Leroy Merlin eta Michelin II gunea. Zuek Leroy Merlinden alde egin zenuten. Nola eragingo dio horrek herriko enpleguari eta dendari txikiei?

Alde ez, abstenitu egin ginen. Ez gara saltoki aldien aldekoak, batez ere herritik gertu badaude. Baina sistema kapitalista baten barruan gaude, eta jende asko joaten da zentro horietara; bi eredu horien artean bizi gara, eta erakundeek dendari txikiak babestu behar dituzte merkataritza gune horien aurrean. Herriko dendak oinarritzakoak dira, herrian bizitza sortzen dute. Ikusiko dugu nola eragiten dion. Alde baikorra du, herriko pertsonak kontratatuko dituztelako. Beste alderdi batzuek kritikatu dituzte saltoki handiak, esaterako, EH Bilduk, baina gero ez dute arazorik gobernatzen duten beste herrietan horrelakoak ezartzeko, Oiarzunen, adibidez. Hori demagogia da.

Enplegua sortzeko neurri zehatzik ba al duzue programan?

Ekonomia berdearen alde egiten dugu, inklusiboa, parte hartzailea. Komertzio txikiak babestu behar dira merkataritza gune handien arrear; autonomoak eta enpresa txikiak bultzatu, tramite burokratikoak arintzeko. Bestalde, baserriarren funtzio soziala aitortu nahi dugu, azoken bidez bertako ekoizpena bultzatzeko. Zero kilometroko produktuak sustatu nahi ditugu, horiekin eskolak hornitzeko, landa garapenerako agentziarekin elkarlanean.

Marxan jarriko da laster erraustegia. Zer ikuspegi duzue horren inguruan? Erraustegiaren kontrakoak gara. Udalak ez du eskumenik geldiarazi ahal izateko. Esan digute ahal duena egin dutela. Erraustegiaren aurkako eredu defenatzen dugu guk: ekonomia zirkularra, berrerabiltzea, birziklatzea... Europako zuzentzararekin bat doaz politika horiek; izan ere, hasi dira debekatzen erraustegiak eraikitzea, eta Europako herrialde batzuetan hasiak dira horiek ixten. Ez dugu ulertzen batzuen ikuspuntua. Ez dute erraustegia nahi hemen ondoan, baina ez zaie axola beste leku batean jartzen badute. Arduragabekeria da erraustegia defenatzea. Ikusiko ditugu ondorioak herrian.

Birziklapen tasa baxua du Lasarte-Oriak. Horiek hobetzeko neurririk jaso al duzue programan?

Gaikako bilketako sistema pertsonalizatu bat litzateke hoberena, sortzen diren hondakinen arabera ezartzeko zaborrari dagozkion udal tasak. Ontzi arinak eta beirazkoak bueltatzeko sistema bat jaso dugu programan. Europako toki askotan egiten da. Bueltatzen den ontzi bakoitzeko dirua itzultzen zaio erabiltzaileari. Horrez gainera, kontzientziatzea ere oso garrantzitsua da.

Lasarte-Oria erreferentzia izan da euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik. Zer neurri hartu beharko lirateke bide horretan aurrera egiteko?

Lehenik eta behin, esan nahiko nuke gure taldeak zailtasunak dituela euskaraz aritzeko. Horregatik, konpromisoa hartu dugu, eta ateratzen garen zinegotziek euskaltegian izena emango dugu. Euskara sailak lan ikaragarria egiten du, oso profesional onak dira, eta ekimen mordoan eramaten dituzte aurrera. Gure asmoa da lan hori bultzatzea, eta ekitaldi horiek babestea.

Halere, euskara teknikarien gomendioen aurka egin duzue hainbat kasutan, udaltzain kaporalen hizkuntz eskakizuna beheratzea onartuta.

Guk beti babestu ditugu txosten teknikoak, auzi zehatz horretan

izan ezik. Udaltzaingoak gabezia handiak ditu; haiek horri buruz informatu gintuzten, eta hirugarren profilak oraindik eta zailtasun handiagoak jartzen zituen postuak betetzeko. Horrek bultzatuta onartu genuen hizkuntza eskakizuna beheratzea, kasu zehatz horretan. Salbuespena izan zen, interes orokorrari begira.

Udal Musika Eskolari buruzko mozioa onartu duzue udalbatzarrean orain gutxi. Neurririk proposatzen al duzue egoera hobetzeko?

Herriak kultur ondare handia dauka, eta guk horren alde egin nahi dugu, gobernatu duten alderdiek egin dutenaren kontra. Eta musika eskolaren egoera da horren adibide. Historikoak dira eskolaren aldarrikapenak. Oraindik ez dugu udal bandarik,

"HAUTATUAK ATERATZEN GAREN ZINEGOTZIEK EUSKALTEGIAN IZENA EMANGO DUGU"

"EZ BADUGU JENDEA GERTURATZEN UDAL KUDEAKETARA, ZENTZURIK EZ DU IZANGO POLITIKAK"

Gertutik

Liburu bat?

Momentos estelares de la humanidad (Stefan Zweig).

Filme bat?

Clerks (Kevin Smith).

Zaletasun bat?

Irakurri, patinatu eta Japoniako animazioa.

Pertsona erreferente bat?

Jose Ortega y Gasset.

Herriko txoko kuttuna?

Skate parkea.

nahiz eta beste herri askoz ere txikiagoak baduten. Instrumentu asko falta dira, irakasleen egoera kaskarra da... Guk udalbatzarrean galdetu genien gobernatu zuten alderdiei ea zer egin duten horri buruz, eta inork ez zigun erantzun. Ikusten da kezkarik ez dutela kultura sustatzeko. Nahiago dute gauza ikusgarriak egin, bideak-eta asfaltatu.

Lasarte-Oriak hazkunde handia izan du, eta etxebizitza asko egin dira. Zein da Elkarrekin Podemosek duen herri eredu?

Lasarte-Oriak mugak ditu, eta ezin du betiko hazten jarraitu. Gure ereduak bi oinarri ditu: gardentasuna eta parte hartzea. Ez badugu jendea gerturatzen udal kudeaketara, zentzurik ez du izango politikak. Herri irekia nahi dugu, eta bermatuko ditugu tresnak herritarrek parte hartu ahal izateko. Horrela saihestuko ditugu bezerokeria sareak, eta interes pribatuen mesederako ekintza politikoak.

Bizikidetzaren arloan lan handia egin da orain arte. Zer neurri gehiago hartu beharko lirateke?

Bizikidetzaren Mahaiaren parte hartu dugu; ekintza asko antolatu dira, eta kontsentsu zabalak lortu dira, nahiz eta alderdi oso desberdinak egon tartean. Gure rola izan da elkarren aurkako jarrerak bateratzea, eta gure asmoa da horretan jarraitzea. Indarkeria deslegitimizatzen jarraitu behar dugu, biktima guztiak aitortzen. Beste elkarte eta fundazioekin batera lanean jarraitu behar dugu, Argituz, Bakean eta besteekin. Gainera, aipatu nahiko nuke Bizikidetzako Herritarren Taldea; haiekin bildu izan gara, eta lan oso garrantzitsua egiten dute.



Brigitarren komentua da Jon Antxordokiren herriko txoko kuttunetako bat. "Garai bateko Lasartetik gelditzen den leku gutxietako bat da". TXINTXARRI

"Herriarentzat ona bada, berdin zait norekin egin tratua"

JON ANTXORDOKI EAJ-KO ALKATEGAIA

Lau urtez zinegotzia eta Euskara Zerbitzuko burua. Bi urtez alderdiko bozeramaile, eta, lehenengoz, zerrendaburua. Beste erakunde batzuetako hauteskundeetan EAJk lortutako emaitzak nahi ditu, eta gustura errepikatuko luke urteotako kargua

Maitane Aldanondo

Jon Antxordoki Lasarteko semea da (1982), Saustakoa, Sasoeta baserrikoa. Politikarekiko interesa bo, herriarekiko grina duela dio, hura bultzatzekoa. EAJn beti eroso sentitu izan da. Urte asko daramatza alderdiaren inguruan, eta orain bost bat urte, lanak utzi zionean, gehiago inplikatu zen.

Nola joan da lehen legealdia?

Legealdiaren lehen bi urteetan gobernu taldea akordioetarako

oso irekia ikusi dut. Ideiak hartu edo gauzatzeko gogoia izan du, kirol alorrekoak gure aurreko programakoak dira, eta oso ondo; baina bigarren erdialdean... Badirudi hauteskundeak datozenez denok gaizki moldatzen garela. Ez zait gustatu. Sekula erakundearen egon gabe nintzen, eta agian ohikoa da, baina nahiko harrigarria egin zait. Beste alderdi batera ohituta nago. Gaur lagunak bagara, bihar ere; eta hala beharko luke.

Eta Euskara Zerbitzu buru izatea?

Egia esan, Euskara Zerbitzura iritsi nintzenean ez nuen espero horren balantze polita egitea. Izan ditugu gai teknikoak opari polit hau zikindu dutenak, baina balantzea oso ona da. Euskal Herriko leku guztietan jaso ditugu loreak, eta askotan niri tokatu zait jasotzea, baina ez dira niretzako, ditugun teknikarientzat baizik. Aurkitu dut oso zerbitzu potentia teknikarien aldetik, oso langile finak. Talde zoragarria

daukagu eta oso gustura egon naiz.

Loreei helduta, Lasarte-Oria nabarmendu izan da euskararen inguruko ekimenengatik. Aurrerantzean, zein da bidea?

Gauza asko egin dira, baina mordo dago egiteko. Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez diogu Lasarte-Orian gauza asko egiten direla. Legealdi askotan EAJk eraman du Euskara Zerbitzua, gustura gaude, eta pentsatzen dugu lerro fina

daramala, gorakoa. Ez dakit zer gertatuko den aurrera begira.

Prest al zaude berriro buru izateko?

Orain lau urte esan zidatenean Euskara buru izateko, ez nekien nondik heldu. Ohituta nago nire lantokian taldean lan egitera, baina beti gauza oso materialekin aritu naiz; eta euskara, niretzat, zerbait oso immateriala da. Nola kudeatu jakiteko oso zaila. Daukadan lantaldea, beste sailek izan nahiko lukete, eta gustura jarraituko nuke, bereziki, beraiengatik.

Orbanetako bat, berriz, udaltzain kaporalen profilaren afera izan da.

Arazo nahikoa izan dugu, bai Podemosekin, bai PSE-EEekin. PPrekin ez, ez delako etortzen. Gainerako sailetan teknikarien esanek eta informeeek asko balio dute, baina euskara teknikarien eta Jaurlearitzaren txostenek ez dute inolako baliorik beraiengatik. Ez da zentzuzkoa, eta ez luke horrela behar. EH Bildu eta gu ados egon gara teknikarien iritziarekin, baina kolpe handia izan da. Helegitea jarri diogu udalari, pentsatzen dugulako ez dutela txukun jokatu.

Udal hauteskundeetara begira jarrita, zer aurreikuspen dituzue?

Inork ez daki zer gertatuko den. Herrian politikarekiko giroa nahiko nahasia dago. Azken hauteskundeetan oso emaitza onak izan ditugu, %12 izatetik, %19ra pasatu gara, 2.000 boz inguru lortu ditugu. Jaurlearitzarako ere hala ateratzen ditugu; baina herrirako 1.400. Ez dut ulertzen. Madrilerako alderdiarekin fidatzen da jendea, Jaurlearitzarako eta Foru Aldundirako ere bai, eta herrian zer gertatzen da? Herrian ere gobernatzeko kapazak gara. Han balio badu gure gestioak, herrian ere balio beharko luke. Herriarentzat ona bada, ez daukagu arazorik hitz egiteko eta tratua iristeko. Irekita gaude edozein akordiori. Herriarentzat ona bada, gu aurrera. Oso tratua zaila naiz.

PSE-EE babesteko prest al zaude? Eta alternatibaren parte izateko?

Babestuko genuke PSE-EEren gobernu bat eta lehenago egin genuena. Berdin zait norekin egin tratua, herriarentzako zer da hobereena? Zenbakiak emango balute, batera edo bestera. Harremana ona baldin bada eta lana egiteko egokia, ez dugu arazorik batekin edo bestearekin egin. Agian, Jaurlearitzako edo

Gertutik

Liburu bat?

Pio Barojaren edozein, *Zalacáin el aventurero*, kasu.

Film bat?

Ez naiz zalea, telebista ere ez dut ikusten.

Zaletasun bat?

Zaldiak.

Pertsona erreferente bat?

Lester Piggott jockeya. Gorra zen, familia apalekoa, ukuilu batean bizi zen... hutsune pila izan arren, buelta eman, eta Sir izatera heldu zen.

Herriko txoko kuttun bat?

Komentuko ingurua. Garai bateko Lasartetik geratzen den leku gutxietako bat da. Txikitako oroitzapenak ditut, katekesira gindoazenean lorategian elkartzen ginen.

azkeneko datuak baldin baditugu, EH Bildurekin edo Podemosekin afari buelta batean zerbait tratatu beharko dugu. Irekita gaude.

Zein da enpleguaren egoera Lasarte-Orian? Nola susta daiteke?

Gipuzkoa osoan antzera dago, Lasarte-Oriak zerbitzu gehiago dauka. Iruditzen zait sustatu behar dela herriko hirugarren sektorea. Aterpearekin-eta bilera mordoxka egin ditugu, proposatu ditugu udalbatzarrean herriko dendarietzako abantailak, interesak... Bestalde, industrialde oso zaharkitua dauka, enpresak behera etorriak dira. Gure proposamena da hori berritzea, birmoldatzea, erakargarria izan dadin enpresak etor daitezten.

Hirugarren sektorea sustatzea aipatu duzu. Michelin II edo Leroy Merlin bezalakoak ez al diote kalte egingo?

Leroy Merlin ekartzea guk negoziatu genuen, gauza oso garrantzitsu batengatik: herriko lurretara etorri edo Belartzako poligonora joan, zer alde dago? Gurera etorriaz gero, herrian egingo lukeen mina bera litzateke, alde da herritarrentzat izango direla ehun bat lanpostu zuzen eta zeharkako beste 50. Hemen jarrita, zergak herriari emango dizkio Donostiari beharrean. Interesgarria iruditzen zaigu.

Donostiaren azpiegiturako askok -kartzela, kuartela, erraustegia, hockey zelaia...- herriari eragingo diote. Hango udalean EAJ dela balia al daiteke egoera bideratzeko?

Hockey zelaiari ez diot ezer negatiboa ikusten, EH Bilduk arazoak zituela irakurri nuen prentsan. Aparkalekua leku batean dago eta ondoko lursailean da, ez da ezertarako ibiltzen, erabilpen bat ematea da. Niretzako egokia da eta ona da. Hitzarmen batera iritsi gaitezke Donostiako Udalarekin herriko taldeek erabil dezaten, agian hockey talde bat aterako dugu. Egitea ona da, txarra ez egitea da. Kartzela eta erraustegia jarri nahi dute, baina inork ez du kontuan hartzen ehun hektareako industriagune bat ere jarriko dutela. Lanpostu asko dira. Pentsatzen dut Kordobatik ez dela inor etorriko hona lanera! Lanpostuak dira eta herriak behar ditu, ziur nago inguruko jendearentzat onak izango direla.

Erraustegia martxan jartzeko lehen urratsak egiten ari dira. Azpiegiturak herritarrengan sortzen duen kezka baretzeko zer egin daiteke udaletik?

Kezka ezarria izan dela uste dut, interes politikoak egon direlako. Gu ez gara inor baino listoagoak ez tontoagoak; herrialde oso aurreratuetan hori egiten ari dira, han ez dute osasuna begiratzen? Noski. Zubietan Gipuzkoa guztiko hondakinak erreko dira, baina hartuko dira zaborrak, ahal direnak birziklatu, eta ezin direnak erre egingo dituzte. Europako herrialde aurreratuetan dagoen eredu da, zaborrarekin energia sortzen dute. Erre eta etekin bat ateratzeko gai bagara, positiboa iruditzen zait. Lasarten, Andoainen eta Usurbilen jarrita ditugu airea

"KOTXERAS INGURUA OSO LEKU EGOKIA DA KULTUR ETXEA ZEIN MUSIKA ESKOLA JARTZEKO"

"HERRITARREK OSO URRUN IKUSTEN DUTE UDALA, ARINAGOA ETA HURBILEKOA IZAN BEHAR DU"

kontrolatzeko estazioak, parametro batzuk dauzkate eta horiek gaindituz gero, ordu erdian planta geldituko dute. Ez daukat beldurrik. Beldurra interes politikoak eratu du. Biomekanizazio planta, 2011ko legealdian Bilduk jarri nahi zuena, hasi da lanean eta uste dut inor ez dela konturatu.

Herriko birziklapen tasak eskualdeko baxuenak dira. Zaborren kudeaketak ez al du aldaketarik behar?

Bosgarren edukiontzia kontrolerako formulak pentsatu beharko genituzke, egunak jarri... Beste herrietan zerk funtzionatu duen aztertu eta antzekoa egin beharko genuke. Horrez gain, lurpeko edukiontzia ez dira zabor bilketarako egokiena: arazo asko dituzte, puskatzen dira, konponketak oso garestiak dira... Uste dugu aurreko eran hobe ginela, kendu egingo genituzke. Erdigunean trafikoa mugak jartzea jaso duzue programan.

Erdigunea asteburuetan zerbitzu publikoentzat, autobusetzat, eta oinezkoentzat uztea; eta astegunetan, zona 30 Km delakoa jarri. Ohitzeko, eta pentsatzen hasteko hemendik urte gutxira peatonalizatu eta oinezkoentzat bakarrik izango dela. Bestalde, kotxe elektrikoak kargatzeko guneak jarri nahi ditugu.

Musika eskolako irakasleekin arazoak legealdiko beste puntu beltz bat izan dira. Horrez gain, azpiegiturak lasarteoriatarren beharrei erantzuten dien ere zalantzan jarri da. Zer derituzo?

Langileekin arazo bat dago, kontratazioekin, ez da gure herriko bakarrik. Irakasleak gutxi dira, ikasturtea hastear dela kontratatzen duzu, espezifikoa da, piano irakasleak ez du soinu eskolarik ematen... Zaila da. Foru Aldundiak zerrenda batzuk egin ditu eta Musikenetik irakasleak ateraten hasten direnean txikituko da. Kontzientzia gara, konponbide zaila dauka, baina emango diogu. Bestalde, iruditzen zaigu kultur etxea nahiko kolapsatuta dagoela. Kotxeras ingurua oso leku egokia iruditzen zaigu kultur etxea zein musika eskola jartzeko, baita elkarteei euren kultur jardueretarako uzteko ere. Babestu nahi izan genuen gunea izan da, baina PSEK eta plenoak ez zuten nahi izan.

Lasarte-Oriak elkarte sare anitza du. Zer nolako harremana eduki beharko luke udalak haiekin?

Udalak hurbilagoko harremana izan beharko luke eta sustatu. Zurrun eta urrun ikusten dute.

Ez elkarrekin bakarrik, herritarrak ere oso urrun ikusten du udala, *monstruenko* bat dela, askoz arinagoa eta hurbilekoa izan behar du.

Nola lortuko duzu gertutasun hori?

Udal barruko kudeaketa asko aldatu behar da. Herritarrak ez du ikusten, baina urtetan udal barruan langileen kudeaketa nahiko txarra izan da, eta jendea ez dago pozik lanean. Langile batek gustura egon behar du, bestela produktibitatea asko jaisten da. Pertsonala ez luke politikari batek zuzendu behar, tekniko beharko luke; batez ere, hor dauden politikari gehienek ez dutelako sekula enpresa pribatuan lan egin. Orduan, nola kudeatuko dute? Ez dakite. Hori aldatu behar da. Era berean, komunikazioa konfiantza kargua da, eta ez zaigu egokia iruditzen. Udalak neutroa izan behar du, ezin du alderdikoia izan. Lizitazio batean aterako genuke eta eraman dezala enpresa batek neutroki, bai alderdi batekoak, bai besteak edo edozein atera dadin. Gainera, Herritarren Arreta Zerbitzua martxan jarri behar da. Genuen langileak ez du euskara gaitasunik, eta behar du. Kanpora atera edo pertsona egoki bat kontratatu beharko da.

Aurreko hauteskunde programan kirolean jarri zenuten fokua. Oraingoan zer proiektu dituzue?

Zalantzarik gabe, gurea izan zen onena, gobernu taldeak erabaki zuen guk proposatutakoa egitea. Ontzat jo zuen, adibidez, herriko gimnasio pribatuekin eta hipikarekin akordioa kartera zabalagoa eskaini eta ez bikoizteko. Herriak behar du kiroldegi berria, baita futbol eta errugbirako zelaia, pista multidiziplinarra. Michelinekoa saturatuta dago eta behar dugu beste bat entrenatzeko bada ere. Elkarbizitza dagoakionean, nola balioesten duzu egindako lana? Segi behar dugu bide horretatik. Kanpoko jendeari iruditzen zaio nahikoa egin dugula, baina oraindik egiteko asko dago. Sufirimendu handia egon da herri honetan: hildakoak, presoak, torturatuak, sakabanatuak, dirua eskatu zaien enpresariak, bizkartzaina eraman behar izan dutenak... Horrek denak lan handia du atzetik. Pauso handiak eman dira, baina asko falta zaigu oraindik; urte askotan sendatu beharreko zauriak dira.



Azoka egunean herritarrei alderdiaren eskuorriak, goxokiak eta boligrafoak banatzen aritu zen kanpaina ekimenean. TXINTXARRI

Maitane Aldanondo

Izaera sozial nabaria duela dio Alejandro Saenzek (Lasarte, 1990), ahal duen heinean, beti hurkoari laguntzen saiatu dela. Boluntario lana egin du, eta alor sozio-sanitarioan dihardu arazo mental larriak dituztenekin. Lehenengoz aurkeztu aurretik udala jende gehiagori laguntzeko lekua bezala ikusten zuen. PP aukeratu zuen familia kontserbadore batekoa baita, ekonomikoki oso liberala, eta zentro-eskuinekoa.

Nolakoa izan da zure lehen legealdia?

Oso ona. Lan asko egin dut, eta are gehiago dibertitu [kar, kar]. Udalean sartzean, Lasarte-Oriako gauza asko ezagutu ditut existitzen zirenik ere ez nekiena. Elkarteak, herritarrak, enpresak... Euren beharren berri eman edo Lasarte-Oria nolakoa izatea nahiko luketen esan didate, eta oso polita da haiek gauzatzeko proposamenak egin ahal izatea.

Eta zer iritzi duzu udal gobernuaren jardunari buruz?

Ez dut alkatearen borondate ona zalantzan jartzen, pertsona ona da; baina hainbat gauzatan ez du asmatu. Lehen egunetik nabarmendu nahi izan du PSE-EEren lana, EH Bildurenarekin alderatuta. Hala igaro dituzte lau urte, iskanbilan. Ez gara bat etorri alor ekonomikoan, gardentasunean edo turismoan; Donostiaren olatua hartu behar dugu, udan Lasarte hustu egiten da. Lau izardun hotela proiektatu zuten eta azkenean bikoia izango da... Ez da Donostiako eta Usurbilgo alkateekin hitz egiteko gai izan... Borondatea eta lidergoa falta izan zaiola uste dut.

Bigarrenez alkategaia zara. Zer emaitza aurreikusten duzu?

Erabakigarriak izan nahi dugu. Duela lau urte ezohiko zerbait gertatu zen, boto erabilgarriak Euskadiko eta Gipuzkoako PP erabat txikitu zuen. Orain, abagunea erabat bestelako da, eta ikusiko dugu zer gertatzen den lehenengoz errepikatzen duen Podemosekin. Ea nola jokaten duten hautesle horiek. Erabakigarri izatea dugu helburu, bai udal gobernuaren osaketan bai datozen lau urteetan egingo denean. Aritmetika oso apetatsua da eta ez litzateke PPK herriko alkatea aukeratzen duen lehen aldia izango... Uste dut berriro zeinogotzi izango naizela eta ea zenbat hazten garen. Ilusioz nago. **Eskuineko alderdi berriek kalterik egingo dizuete?**

"Ez litzateke PPK alkatea aukeratzen duen lehen aldia..."

ALEJANDRO SAENZ PP-KO ALKATEGAIA

Behin-behineko lanekin bateratu behar izateak zaildu egin dio jardun politikoa, baina bigarrenez alkategai eta zerrendakide da. Alderdiari atxikipena familiatik datorkio, aita zerrendako hirugarrena da. Erabakigarria izan nahi du.



Alejandro Saenz zinegotzi karguan errepikatuko duela uste du eta bere alderdia hazi egingo den itxaropena du. TXINTXARRI

Ez. Hasteko, Vox eta Ciudadanos ez dira aurkeztuko. Gainera, udal hauteskundeak eta orokorrak ez dira gauza bera. Orokorretan askok alderdia bozkutzen du, eta udalekoetan, pertsona.

Eta alderdi barruko ika-mikek?

Ez. PP nazionalarekin alderatuta, irudi oso ona dugula uste dut, bereziki Gipuzkoan.

Herritarren kezka iturrietako bat enplegua da. Zer egingo zenuke hori sustatzeko?

Ezin gara konformatu herrian eta haren sarbideetan ezartzen

diren multinazional handiek sortutako lanpostuekin. Apustu indartsua egin behar dugu bertako enpleguaren alde. Horretarako zergak jaitsi behar dira, eta merkataritza nahiz ostalaritza zerbitzuak mugatzen dituzten administrazio arauak kendu: ekintzaileei laguntzeko, terrazan mahai gehiago jarri edo jarduera ezberdinetako lokalak bateratu nahi dituztenei, baina arautegiak ez die uzten. Burokrazia arindu behar da, denak dinamikoagoa eta

azkarragoa izan behar du; eta garrantzitsuena, udalak ez dezala oztopatu.

Michelin II edo Leroy Merlin bezalako enpresen, nola babestuko zenituzke herriko merkatariek?

Merkatari txikiei erraztasunak eman behar zaizkie: sentiberak izan zergekin, martxan jarri bertako kontsumoa sustatzeko programak, diru laguntzak... Alkatea eta udal gobernu ezin dira baldintza batzuen arabera baiezkota edo ezezkoa ematera mugatu, aholkatu eta lagundu

egin behar dute. Esaterako, merkatarik elkarteak zerbait proposatu edo martxan jarri nahi badu, alkateak esan behar dio ez duela funtzionatuko, ez duela ezertarako balio. *Biziberritzen* programaz ari naiz, lokal hutsak beste nonbait dauden gauzen erakusleho bilakatzen ditu, baina ez du jardura ekonomikorik sortzen. Porrot bat ezkutatzeko modua da. Programa bat abiarazi beharko litzateke lokal haiek alokatzea eta egiazko jardura sortzea errazteko.

Erraustegia aurki lanean hastekoa da. Zein da zure jarrera? Hainbat herritarren kezkaekin bat al zatoz?

Hasieratik administrazio guztietan Bizkaiko erraustegia handitzearen alde egin genuen; baina Zubietan eraikitzearekin endrokatu egin zen EAJ. Gauzak borrokatzearen aldekoak gara, baina ikusita dirutza inbertitu dutela, isuna ia gehiago dela, eta eraikuntza aurreratuta dagoela; bukatu behar zutela uste dugu. Herritarren kezka ulertzen dut, inori ez zaio gustatzen halako zerbait etxea ondoan izatea. Emozioak arintzea zaila da. Zerbaitetik beldurra edo kezka eragiten badu, ez du desagerraraziko airearen kalitatea eta parametroak neurtzeko ingurumen zentro bat jartzeak. Horrek etengabe patroï positiboak eman eta inolako kexa edo zalantzarik ez eragitea da eronka. **Ingurumenari lotuta, Kotxeras berdegune bilakatu nahi duzue.**

Gune berdeak falta dira, are gehiago zonalde horretan. Oraindik ere Lasarte eta Oria arteko bereizketarekin jarraitzen dugu, eta konexio faltagatik kexu dira bizilagunak. Kotxeras industriagunea zen, abandonatuta dago, eta gune beltz bilakatu da: okupekin arazoak izan dira, zaborra pilatzen da... Irudi hori aldatu eta berdegune bilakatzea positiboa litzateke. Edonola, partaidetza prozesu bat egingo dugu jendeari galdetzeko hori nahi duen edo merkataritza gune berri bat behar den Lasarte eta Oria lotzeko. Hau da, berdegunea, baina ostalaritza eta merkataritza lokalak ere badituena.

Udal azpiegiturak auzoetara zabaldu behar direla uste al duzu? Deszentralizatu egin behar da. Lasarte asko hazten ari da Buenos Airesetik aurrera egiten ari diren etxe guztiekin, eta oriatarrek ez

"ORIA IBAIAREN IBILGUAN ESKU HARTU NAHI DUGU PIRAGUISMOA EGIN AHAL IZATEKO"

"ELKARBIZITZA BEHARREZKOA DA, BAINA EZIN ZAITUZTE BIZIKIDE IZATERA BEHARTU"

dute inolako eskaintzarik ez badatoz erdialdera. Oriako hainbat bizilagunek bere haserrea adierazi didate Karmengo kaperan aspaldion mezarrik ematen ez dutelako. Udalean ardura politikoa badugu, Elizarekin negoziatuko dugu bertan mezarrik emateko asmorik ez badute, gune hori kultur jardueretarako baliatzeko. **Ildo beretik, Lasarte-Oriako kultur baliabideak herritarren beharrei nola egokituko zenituzke?**

Manuel Lekuona kultur etxearen berritze integrala dugu programan. Ez da ekipamendua eguneratzea bakarrik, baita egituraketa birpentsatzea ere. Halaber, kiroldegi berria eraikitzean, zaharraren tokian erabilera anitzeko eraikin edo pabiloi bat egokitu nahi dugu. Azokak, herri kirolak, kultur jarduerak edo elkarteek ekimenak egiteko balioko duena. Musika eskola ere bertan jarriko genuke. **Elkarteak aipatu berri dituzu. Sare zabala eta anitza du Lasarte-Oriak. Zer nolako harremana izan behar du udalak elkarteekin?**

Elkarteak dira herri honetatik gehien gustatzen eta balioesten dudana gauzetako bat. Askodaude eta eskaintza zabala antolatzen dute; eta oso polita da, bakoitzak bere ekimenak egiteaz gain, batak bestearekin ere asko gauzatzen baitituzte. Udalak hori sustatu eta indartu behar du, eta bereziki, egiten utzi. Zerbait proposatzen badute, aukera eman, ez oztopatu. Lan handia egin dut elkarteekin, Eusko Jaurlaritzaren 96.000 euro lortu genizkien jarduerak egiteko. **Euskara ikasten ari zara.**

Bigarren profila dut, *belarriprest* naiz. Lasarteko AEKn ikasten dut eta ondo daramat.

Zer deritoxu herrian egindako normalizazio prozesuari?

Positiboa da. Euskara elkargune bat da; Euskadi, Gipuzkoa eta Lasarteko bi hizkuntzetako bat. Baina, esan bezala, topagunea izatea nahiko nuke. Gehituko duen zerbait, inolaz ere ez oztopoa, pertsonak bereizi edo haserrea eragitea. Zerbait polita eta zaindu beharrekoa da.

Kaporalen euskara profil eskakizuna jaistea babestu zenuten, ordea.

Bai. Udallerriaren errealitate soziolinguistikoiari erreparatu behar zaiola uste dut. Lasarte Michelin bezalako enpresen inguruan hazi zen, Galizia, Extremadura, Andaluzia edo Errioxatik etorritako jendearekin. Ezin dugu pentsatu etorkizunean,

Gertutik

Liburu bat?

Patria (Fernando Aranburu).

Film bat?

Gladiator (Ridley Scott).

Zaletasun bat?

Kirola. Atletismoa asko gustatzen zait. 6 eta 16 urte artean LOKEn aritu nintzen, Espainiako txapelketetan parte hartu nuen.

Pertsona erreferente bat?

Borja Semper.

Herriko txoko kuttun bat?

Brunet parkea, bake handia ematen dit.

txikitatik euskara ikasten duen jende gaztearengan. Bada adin tarte zabala bateko jendea euskara ez dakiena, ikasten ari dena, baina 3. profila ez duena eta izatea oso zail duena. Gure jarrera hau da: egun, ez; hemendik belaunaldi batera edo bira, bai, errealitate soziolinguistikoa beste bat izango baita.

Aspaldiko eskakizuna den kiroldegia gauzatuko dela dirudi. Zer azpiegitura behar ikusten dituzue?

Michelinen kiroldegia egin nahi dugu, noski. Baita negoziazio serio bat izan ere Usurbilgo alkatearekin, Atsokarreko pistek harmailak izan ditzaten. Berritasun gisa, Oria ibaiaren ibilguan esku hartu nahi dugu piraguismoa egin ahal izateko,

estilo librean eta slalomean. Gipuzkoako Piraguismo Federazioarekin lantzen aritu gara, eta 20.000 euro lortu genituen bideragarritasun ikerketa egiteko. Lurraldeko, erkidegoko eta nazioko federatu lehiaketa garrantzitsuak ekartzeko aukera izango genuke; ikastetxeetako ikasleek erabiltzea izango lukete, ekintzaileek negozio ideiak pentsa ditzakete... Askodaude gustatzen zaigu proposamena. Gainera, olinpiar piraguista bat dugu herrian! **Bizikidetzak Mahaian falta den bakarra zara. Zergatik?**

Oso gaizki pasatzen nuelako. Aitona ETak erail zuen eta ez nentorren bat entzuten nuenarekin, gogorra egiten zitzaidan han egotea. Uste dut gaizki bideratuta dagoela, nahita edo nahi gabe eduki politikoz eta sinbologiaz hustu egin ditu terrorismoaren biktimak. Elkarbizitza beharrezkoa da, baina ezin zaituzte bizikide izatera behartu.

Zer da gaizki dagoena?

Ezin dira gauzak egin zer lortu nahi den jakin gabe. Mahaia moderatzen duen Baketik Fundazioko pertsonarekin azkena hitz egin nuenean, esan zidan edonolako biktimekin elkartuko zirela, baina ez zekien hori zertan gorpuztuko zuten. Ez zait bizikidetzak lantzeko modu positiboa iruditzen, ez diot erabilgarritasunik ikusten. Kontakizuna borrokatu behar dugu eta mahai horretan hori

ez beste edozer egiten da. Urte batean Terrorismoaren Biktimen Eguna errespetatu zuten, baina hurrengoan, desitxuratu, eta Memoriaren Eguna izatera pasatu zen. Egun hori beraientzat gorde behar zela uste dut, eta noski, beste egun batean aitor ditzakegu frankismoaren biktimak, GALenak, poliziak torturatuak... **Zein litzateke bidea, orduan?**

Beste modu batean omenduko nituzke biktimak. Nik onartu ditut eskubide urraketak, edonolako indarkeria negatiboa dela, ezin dela ontzat hartu... Nola ez ba! Dena aitor dezagun, baina errespetatuta bakoitzaren sinbologia eta esanahia. Hemen gertatu zenaren egiazko sinbologia ez dira zaintzen ari, galtzen ari da, eta hori ezin da. Ez diogu ez egiteko, ez nahasteko baizik. Mozio bat aurkeztu dudanean beti ezezkoa eman didate, eta ez dakit zergatik.

Udalbatzarra beharrean, Bizikidetzak Mahaia delako horretarako foroa.

Udal baten erabaki organo gorena udalbatzarra da, eta jarduera demokratikoan edozein alderdik aurkez dezake egoki deritzona. Ez dut ulertzen aitortza bat atzera botatzea prozedura akatsa argudiatuta. Udalbatzarrak Mahaia baino zilegitasun gehiago duela uste dut. Mahaia atek itxita da, inork ez du ikusten. Zer arazo dago jendaurrean egiteko? Zer beldur dute? Zer konplexu edo lotsa? Ez dut ulertzen. Ez du ezer negatiborik.



Gipuzkoako PPKo Batzar Nagusietarako zerrendan Donostialdeako bigarren ere bada Saenz. GIPUZKOAKO PP



Ehunka herritar manifestatu ziren larunbat arratsaldean errausketaren aurka. TXINTXARRI

Birziklapen eraginkorra, erraustegia gelditzeko

Ehunka herritar atera dira kalera, errausketaren aurka egin eta hondakinak kudeatzeko alternatiba hobekak daudela aldarrikatzera. 'Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez!' lelopean, salatu dute Lasarte-Oriak ez dituela behar bezain ongi hondakinak gaika biltzen

Iñigo Gonzalez Sarobe

Datuek esaten dute Lasarte-Oriak hondakinaren erdia baino gutxiago biltzen dituela, eta herritar bakoitzak 228 kilo errefus sortzen dituela urtean. Aire Garbia plataforma arduratuta dago horrekin, eta nabarmendu du herria Gipuzkoako hondakin kudeaketaren "azken bagoian" doala, Irunekin -306 kilo errefus sortzen ditu urtean herritar bakoitzak eta hondakinaren %53 biltzen ditu gaika-, Donostiarekin -275 kilo eta %40-, Hondarribiarekin -278 kilo eta %53- eta Mendarorekin -286 kilo eta %45- batera. Bost herri horiek "beharrezko" dute erraustegia, "gaizki" kudeatzen dutelako zaborra. Ermuak, Mallabiak eta Eibarrek ere bai.

Kontrara, beste 32 herri hondakinaren %70 biltzen dituzte gaika, eta urtean 100 kilo errefus baino gutxiago sortzen dituzte 53k. Probintzia guztiak kudeaketa hori egingo balu, 80.000 tona errefus sortuko lituzke urtean. "Zertarako beharko genuke

200.000 tona tratatzeko diseinatuta dagoen azpiegitura bat?", hausnartu dute Aire Garbiakoek.

Lasarte-Oriaren kopuru eskasak salatze aldera, eta aldarrikatzeko hondakinak erraustea baino alternatiba hobekak daudela, manifestaziora deitu zuen plataforma horrek larunbat arratsaldean. GuraSOS elkarteak -asteon hiru urte bete dira sortu zenetik- eta errausketaren aurka lanean ari diren hainbat eragilek bat egin zuten elkarretaratzearekin.

Herritarren osasuna, "arriskuan"

Ehunka pertsonak egin zuten protesta. Ibilbidea, honako hau: Okendo plazatik hasi; Kale Nagusia zeharkatu; Lasarte-Oriako Osasun Etxea eta Elizatze plaza pasa; Tajamarreko biribilgunean buelta eman; Geltoki kaletik igaro; eta Okendon bukatu. Tomax Arruti eta Pontxo Moralesen txalaparta doinuek egin zieten harrera manifestariei. Gazte talde batek 2011n Zubietan

egindako *flashmob* jendetsua ekarri zuen gogora gero.

Larunbateko ekitaldia amaitu aurretik, Aire Garbiako kideek testu bat irakurri zuten. Ohartarazi zuten "arriskuan" jarri nahi dutela herritarren osasuna "erraustegia bultzatzen duten alderdiek", EAJk eta PSEk: "Mundu osoko erraustegietan egiten diren ikerketak bat datoz: minbizi izateko arriskua handiagoa da azpiegitura horien inguruan; arnas aparatuko gaitzak eta ugaltzeko arazoak ere ugaritu egiten dira". Zubietan eraiki duten errauste plantaren isurkinak "urtean bitan" ikertu nahi dituztela adierazi zuten. "Metal pisutsuak eta toxikoak ezin dira ongi neurtu horrela".

Aire Garbiak uste du posible dela azpiegitura hori gelditzea. Horretarako, "funtsezkoa" da gaikako bilketa portzentajeak handitzea, eta hondakinak eraginkor kudeatzea, birziklatuz. Norbanakoei eragin, helburu kolektiboa betetzeko. "Lehenbailehen bukatu behar dugu zentzugabekeria honekin".

Hauteskundeak oso presente maiatzeko udalbatzarrean

Ekainaren hasieran egingo dute legealdiko azken udalbatzarra. Ekainaren 15ean osatuko da batzar berria

Txintxarri

Hauteskunde kutsua hartu du aste honetako udalbatzarrak, legealdi honetako azken bigarrenak. Plenoa ekainaren 15ean osatu aurretik, beste bat egingo dute hurrengo hilaren hasieran.

Oria-Gaineko eremuko lursailean alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeke mozioa aurkeztu du PSE-EEK, baina udalbatzarraren gehiengoak erabaki du mahai gainean uztea, ekainean osatuko den udalbatzar berriak onar dezan. EAJren

proposamenez atzeratu dute gaia: "Ez zaigu egokia iruditzen hauteskundeak baino bi aste lehenago horrelako proiektu bat onartzea", azaldu du Jon Antxordoki EAJko bozeramaileak.

Kontu-hartzailearen erreparotxostenen kontu ematearen ondoren, EH Bilduren mozioa eztabaidatu dute. Gazteen autonomia eta emantzipaziorako laguntza lerroak ez dira aurrera atera, ADLOP eta EAJ abstentitu baitira. Horren ordez, PSE-EEren mozioa onartu dute, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen aldekoa.



TXINTXARRI

Urtaroaren erdian, Udaberri Festa

Udaberri festa ospatuko du Aterpea merkatari eta ostalari elkarteak. Ostiral arratsaldean hasiko dute jarduera sorta zumba eta jumping emanaldiarekin. Puzgarrietan saltoka arratsakdea igarotzeko aukera izango dute txikienek. Oinak beharrean, eskuak erabilia ondo pasatu nahi dutenentzat ere tailerrak prestatu dituzte. Helduentzat, berriz, bi kontzertu eta eskaintza bereziki izango dira hainbat saltokitan. Larunbatean, berriz, txu-txu trenean herriko kaleetan barrena joateko aukera izango da. Bestalde, Aterpeak eta udalak urteko hitzarmena sinatu dute. Aurten 25.000 euroko laguntza jasoko ditu.



Porrotx eta Marimotots. ISAAC FARRE RICO

Ohitura zahar eta berriak oholtzan

Manuel Lekuona kultur etxeko aretoa bete zen larunbat arratsaldean. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen azken ikuskizunaz gozatzeko: *Musua*. Haur eta helduek euskal ohitura eta jailetan oinarritutako saioa adi-adi jarraitu zuten. Emanaldiko kantuak ere ederki dantzatu eta abestu zituzten. Tamalez, Pirritx falta zen, oraindik bajaran dago eta.

Realak ametsa bete du; Kopa Donostian da

Txapeldun da Realak, 32 urte eta gero. Atletico Madrili 1-2 irabazi, eta Kopa altxa du Granadan, 1.500 realzale ingururen aurrean. Emakumeen taldeak irabazten duen lehenengo titulua da. Iraia Iparragirre herritarrek partida osoa jokatu du

Iñigo Gonzalez Sarobe

Balentria ederra egin du Realak. Klub txuri-urdinaren historiako kapitulu zoragarri bat idatzi zuen emakumeen taldeak larunbat iluntzean, Granadako Los Carmenes zelaian. Faborito argia zen Atletico Madril neurketa hasi aurretik, baina futboleko topikoez dioten bezala, ezer ospatu aurretik jokatu egin behar izaten da partida. Kiana Palacios eta Nahikari Garciaren golei esker, 1-2 nagusitu ziren gipuzkoarrak, eta euren palmaresa estreinatu zuten. Añorga izan zen Kopa irabazi zuen azken euskal taldea, duela 26 urte. Realak denbora gehiago zeraman garaikurrik altxa gabe: 1987an irabazi zuten titulu hori gizonak.

Lepo zegoen estadioa. 18.000 ikusle. Horietatik 1.500 inguru, realzaleak. Lasarte-Oriakoak batzuk. Txuri-urdinen jarraitzaile izateaz gain, Iraia Iparragirren jarraitzaile ere badira. Poz ederra hartu zuten herritarra hasierako hamaikakoan ikusi zutenean. Eskuin hegalean aritu zen, defentsan. Partida osoa jokatu zuen, eta lan bikaina egin. Ez du berehalakoan ahaztuko larunbateko gaua Iraiak. Zaleek ere ez.

Atletico Madril sekulako taldea da. Iberdrola Ligako indartsuena, Bartzelonarekin batera. Hiru liga irabazi ditu segidan. Kopa ere zakuratu nahi zuen, baina aurreikuspen guztien kontrara, esku hutsik bueltatu zen Madrilera.

Partida hobeto hasi zuten, eta markagailuan aurreratu ere bai, Esther Gonzalez aurrelariaren golari esker. Duela bi aste hiruzartu zituen Zubietan. Larunbatean, bakarra. Realak, Mariasun Quiñones atezainak batez ere, ez zien utzi gol gehiago ospatzen.

Hasierako kolpeari buelta eman eta gero, txuri-urdinen minutu



Realeko jokalariek eta entrenatzailea Koparekin. Iraia Iparragirre oihuka dago. REAL SOCIEDAD

onenak etorri ziren. Baloia kendu zieten madrildarrei, eta bizkor mugitu zuten, Lola Gallardoren ate ingurura arriskuarekin iritsiz, azkeneko metroetan erabaki oso onak hartu ez bazituzten ere. Nola diren gauzak: itxuraz arrisku gutxien zeukan abagunean sartu zuten Realak berdinketaren gola. Areatik gertu jaso zuen baloia Kiana Palacios aurrelariak, eta zertxobait urruti bazegoen ere, ez zuen bi aldiz pentsatu eta jaurtitzea erabaki zuen. Gallardok erraz geratuko zela zirudienean, baloia ihes egin zion, eta hanka artetik sartu. Zoramena zelaian. Zoramena gipuzkoarren aulkian. Eta zoramena harmailetan.

Oso faborito zarenean, eta uste duzunean zuk idatziko duzula partidaren gidioa, ustekabeek sekulako mina egiten dizute. Hori gertatu zitzaion Atletico Madrili bigarren zatian. Urduritzen hasi zen, ikusten zuelako uste baino askoz komeria gehiago edukiko zituela partida irabazi eta Kopa altxatzeko. Realak ezin hobeto baliatu zuen aukera. Ezin zuen beste batek izan: Nahikari Garcia aurrelaria, taldeko izarra, arduratu zen markagailua eta neurketa hankaz gora jartzeaz, Leire Bañosek arean utzitako baloia

sareetara bidaltzean. 1-2, eta hogei minutu aurretik.

Gonzalo Arcónada entrenatzaileak erabaki zuen defenditzea zela titulua zakuratzeko estrategia onena. Eta ongi atera zitzaion. Hortzak estu-estu eginda jokatu zuten txuri-urdinek, madrildarrei abagune gutxi sortzen utziz.

Epaileak partida bukatu zela adieraztean, errealitate bihurtu zen ametsa. Euren historiako aurreneko titulua irabazi zuten emakumeek, eta merezi bezala ospatu zuten. Zelaian aurrea, zaleekin batera, eta aldagelan gero, xanpain eta guzti. Ez da gutxiagorako.

Esker ona

Igande arratsaldean zaleen eta gizonen taldearen esker ona jaso zuten, Anoetan. Egun hauetan, Gipuzkoa osoan zehar dabilta irabazitako titulua erakusten. Atzo, Lasarte-Orian izan ziren, eta udalak harrera berezia egin zion Iraia Iparragirre jokalaritari.

Komeni azkena izango balitz ospatzea, badaezpada ere, Realak ez delako urtero bitrinak betetzen dituen horietakoa. Talde honekin, hala ere, edozer da posible, Granadan erakutsi bezala.



EGUZKI ARETO FUTBOLA

Udaberriko kopa eskuetan

Eguzki Areto Futbola lan ederra egiten ari da harrobiarekin. Kadete kategoriako taldeak, Balerdi Harategiak, Udaberriko Kopa altxa du Donostiako Gaska kiroldegian, Zarautzi 2-3 irabazita. Denboraldia ezin hobeto bukatu dute Gorka Redondo eta Edu Menaren mutilek. Bestalde, ISU Leioak taldeak II. mailako finalerako bidean da. Gaur, 20:50ean, jokatu du kanporaketa, Maialen Chourraut kiroldegian.

Errebantxa, bihar Donostian

Gutxigatik ihes egin dio joaneko partidak Ostadar SKTri, 55-60, baina ez kanporaketak. Bost puntuko desabantaila irauli beharko dute urdin-beltzek, Gipuzkoako finala jokatu nahi badu. Bihar, larunbata, neurtuko ditu indarrak Antigua Luberrerekin berriro, Benta Berri kiroldegian. Denboraldi honetan oraindik ez diote irabazi donostiarrari.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Elkartasun maratonia, bihar

Garun-paralisiaren aurkako elkartasun maratonia izango da bihar, larunbatean, 10:00etatik aurrera, Loidi Barrenen. Saito gimnasioak udalaren eta hainbat merkatariren laguntzaz antolatutako maratonia garun-paralisia duen haur baten familiari laguntzea du helburu. Bi ordu eta erdian, pilates, zumba eta jumping saioak eskainiko dira. Kangoo erakustaldia ere izango da. Sarrerak salgai daude Saiton, Marbellan, Alson tabernan eta Buenetxea.

ZORION AGURRAK




Manex
Maiatzaren 21ean urtebete egingo dezu. Muxu goxo asko Urnieta, Ergobi eta Lasarteko familien partez!!!



Eneko
Zorionak Eneko, oso ondo pasa zure egunean. Muxu erraldoia etxeko partez.




Koan
Zorionak bihotza! Dagoeneko bi eskuak!!! Egun ederra igaro izana espero dut. Maite zaitut.




Ane
Zorionak Ane! 18 muxu zure kuadrilaren partez. Asko maite zaitugu.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 17




Larunbata, 18




Igandea, 19




Astelehena, 20



Astearte, 21



Asteazkena, 22



JAIOTAKOAK

Oihan Aguirre Mayo. Maiatzaren 11n.
Paula Calvo Lasiosa. Maiatzaren 9an.

HILDAKOAK

Francisca Vegas Calvo. Maiatzaren 12an.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garajeko marra bat alokatzen dut, hilabetean 60 eurotan, Pablo Mutiozabal 2. zenbakian. Telefonoa: 688 655 218.

LANA

ESKARIA

Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna baterako. Interesatuak deitu: 607110365.

ESKAINITZA

Laguntza behar duzu? Lasarte-Oriako pertsona eskaintzen da etxea garbitzeko, janariak prestatzeko, plantxa egiteko... Esperientziaduna. 659 429 221.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko

lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira

TAMAINA BERRIA
Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publikitate@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA
Modulo handia. 20 € + BEZ barne publikitate@ttakun.eus 646.824466

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 17 GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 18 URBISTONDO
Igandea, 19 URBISTONDO
Astelehena, 20 URBISTONDO
Astearte, 21 ORUE
Asteazkena, 22 DE MIGUEL
Osteguna, 23 LASA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEJUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Biyak Bat elkarteko irteera

Hilabete honetan, Biyak Bat elkarteko kideek Haro herrira egingo dute bisita. Bakearen plaza, udaletxea, hainbat jauregi eta Vegako Ama Birjina basilika ezagutuko dituzte. Cuzcurrita del Rio Tiron herrian bazkalduko dute. Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte; bazkide ez direnek, 45 euro. Izena ematea Biyak Bat elkarteko bulegoan egin behar da, 10:30etik 12:00etara.

Bidaia Britainia eta Normandiara

Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatuta du Britainia eta Normandiara, uztailek 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

txintxarri

www.txintxarri.eus

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Udaberriko bertso saioa. Bertsoak, musika, literatura, artea, umorea, dantza... denetarik nahastuko da aurten ere Udaberriko bertso saio berezian. Ane Labakak, Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak Maddi Labakaren gaietara erantzuna eman beharko diete. Idoia Garzes eta Bixente Beltran, Semblante Andaluzeko Kiko eta Asier, Aitor Atxega, Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideak, Ione Zabala, Bea Egizabal, Intza Alkain eta Nikola Iraola ere izango dira oholtzan. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata, 22:30ean.

OSTIRALA 17

LASARTE-ORIA Udaltop

Udaltop Euskara teknikarien jardunaldien bigarren eguna. Manuel Lekuona kultur etxea, 09:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Erakusketa

Karmelo Oñate ilustratzailearen marrazkien erakusketa ikusteko azken eguna izango da.

Eskoriatzarrak mendian praktikatzen dituen kirol disziplina ezberdinetan bizitako uneak irudikatzen ditu.

Antonio Mercero aretoa, 19:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Gazteei eta haien gurasoei zuzendutako *Mahaitasunez* ikuskizuna eskainiko da. Transexualitate, aniztasuna, errespetua eta maitasuna uztartzen ditu ikuskizunak. Horretarako musika, kantua, olerkia... erabiliko ditu eta

hausnarketarako tartea ere izango da. Gonbidapena behar da.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Udaberri festa

Aterpea Merkatarik elkartek Udaberri Festa antolatu du. Eguneko egitaraua:

17:00etatik 19:00etara, *Landatu zure landarea* tailerra, Ormazabal loradenda.

17:00etatik 19:30era, *Mural bat egin* tailerra, Ola Enmarcación.

17:00etatik 20:00etara, *Haurrentzako puntu eta kakorrazlanen* tailerra, Olmi mertzeria.

17:30etik 19:00etara, Zumba eta Jumping emanaldia Saito gimnasioaren eskutik, Jaizkibel plaza.

18:00etatik 19:30era, *Paperezko loreak egiten ikasi eta Udaberriko murala* tailerrak, Dulce Tentación denda.

17:30etik 20:30era, Oriamendi plazan, Juan XXIII plazan eta Zumaburuko Arantzazuko Ama elizako plazan puzgarriak.

Eguraldi txarra eginez gero, Loidi Barren pilotalekuan izango dira.

19:30etik 22:30era, Udaberriko barbakoa eta *The Lobster* taldearen kontzertua, Arkupe taberna.

20:00etatik 23:00etara, Lee Juniorrek rock eta pop doinuak eskainiko ditu eta garagardo dastaketa, Buenetxea taberna.

Honez gain, Lasarte-Oriako haurren

marrazkien erakusketa eta eskaintza bereziak izango dira elkarteko hainbat komertzioetan.

Lasarte-Oria, 17:00etatik 23:00etara.

ANDOAIN Musika

Musikari gazte profesionalen osatutako Oiaso Kameratak, Britainiar Uharteetan konposatutako musikaren alderik abenturazaleena eta dibertigarriena ekarriko du. Sarrera, 10 euro.

Bastero kulturunea, 20:00etan.

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Udaberri festa

Txu-txu trenea ibiliko da Lasarte-Oriako kaleetatik arrena. Honez gain, Lasarte-Oriako haurren marrazkien erakusketa eta eskaintza bereziak izango dira elkarteko hainbat komertzioetan.

Lasarte-Oria, goiz eta arratsaldea.

LASARTE-ORIA Musika

Gipuzkoan Gazte Tour Lasarte-Oriara iritsiko da. Egitaraua:

17:00etan, Zunba ikastaroa eskainiko da.

18:00etan, Dinbi Banda batukadak kaleak alaituko ditu.

19:00etan, Anita Parker taldearen kontzertuaz gozatuko da.

20:30ean, DJ Markelin Show.

Okendo plaza, 17:00etatik aurrera.

ERRETERIA Musika

Makulu Ken taldeak Musikaste jaialdia emanaldia eskainiko du.

Xabier Olaskoaga plaza, 18:00etan.

IGANDEA 19

USURBIL Sagardo Eguna

38. Sagardo Eguna antolatu dute. Goizean, Sagardo dastaketa, pintxoak eta Egurrezko Sagardoaren Lehiaketa izango dira. Arratsaldean, *Elektroxaranga* alaituko ditu kaleak. Usurbil, egun osoan zehar.

ANDOAIN Antzerkia

Hai, ametsen arrantzalea ikuskizuna aurkeztu du Joana Rhein artistak. Sarrera, 5 euro.

Bastero kulturunea, 17:00etan.

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA Jokoak

HH3 eta LH2 mailako hurrek eta haien guraso, aitona-amona edo senideek ederki gozatuko dute

Jolasen altxorra ekimenarekin. Hurrek heldu baten laguntza izan behar dute. Ez da izenik eman behar.

Tximistarreta parkea, 17:30etik 18:30era.

ASTEAZKENA 22

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Ipuin kontaketa berezia izango da HH3 eta HH4 mailako hurrei zuzendua.

Ipuineko gaiak lantzeko eskulanak, olerkiak edo abestiak egingo dira. Izena ematea izena ematea, *aisia@ttakun.eus* edo 695 785 392 zenbakian.

Mirentxu, 17:45etik 18:45era.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Intxurre KKE
Larunbata. 17:15. Michelin Kirol gunean.

JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Tolosa CF
Larunbata. 15:30. Michelin Kirol gunean.

INFANTIL OHOREZKO TXAPELDUNEN FASEA
Martutene KE - Ostadar SKT
Larunbata. 11:00. Martutene, Donostian.

INFANTIL TXIKI PARTE HARTZEA, IGOERA
Ostadar SKT - San Marcial CD
Larunbata. 11:00. Michelin Kirol gunean.

INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Santo Tomas Lizeoa KE - Ostadar SKT A
Larunbata. 11:00. Berio, Donostian.

INFANTILEN F-8, KOPA
Udarregi Usurbil FT - Ostadar SKT
Larunbata. 10:45. Harane, Usurbilen.

ARETO FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA, TXAPELDUNEN FASEA
Bar Buenetxea - Patricio Cocktail Bar
Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.

Asador Irigoien - Insausti taberna
Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.

HERRIKO TXAPELKETA, KONTASOLAZIOA
Avenida taberna - Academia London
Ostirala. 20:00. Michelin Kirol gunean.

Izen gabe - Vina del Mar
Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.

Trumoi taberna - Ostiraleko irabazlea
Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.

3. MAILA NAZIONALA
Antiguoko KE - Almi Elorrietako
Igandea. 12:30 Pio Baroja, Donostian.

SASKIBALOA

SENIOR LEHENENGO MAILA, FINALERDIA
Antigua-Luberri KE A - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Benta berri kir., Donostian.

PILOTA
BINAKA PROFESIONALA
Victor eta Mariezkurrena II - Arteaga II eta Albisu
Larunbata. 20:45. Bizkaia pil., Bilbon.

INFANTILAK
Intza 2 - Alde Zaharra
Ostirala. 20:00. Michelin Kirol gunean.

Intza 1 - Zestoa
Ostirala. 20:00. Michelin Kirol gunean.

LASTERKETA
EH MENDI ERRONKA
Hainbat herritarrek VII. Euskal Herria Mendi Erronkan parte hartuko dute.
Larunbata. 08:00. Leitza, Nafarroan.

ENPRESA LASTERKETA

Donostiako badia inguruan egiten den 8,5 kilometrotako proban izango dira herritarrek lehiaketa.
Igandea. 10:00. Donostian.

HONDARRIBIA 10K
Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik Hondarribiko kaleetan barrena lasterka egingo dute.
Igandea. 10:00. Hondarribian.

EREÑOTZUKO MENDI LASTERKETA
Ereñotzu auzo inguruko mendietan barrena lehiatuko dira hainbat herritar.
Igandea. 10:00. Ereñotzun.

IGERIKETA
TROFEO VILLA DE GIJON
Leire eta Ainhoa Martin, Aintzane Sarobe Nora Imaz eta Nerea Santos taldekideak Gipuzkoako selekzioarekin XXXIII. Trofeo Villa de Gijón sarian lehiatuko dira.
Larunbata eta Igandea. Gijon, Asturiasen.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA ESKOLARRA
Buruntzaldea IKTKo hainbat igerilari eskolarteko Gipuzkoako Txapelketa den Igerilari osoa proban parte hartuko dute.
Igandea. Egun osoa. Bikuña kir., Legazpian.

BTT
BASABURU BTT
Lasarte-Oriako hainbat txirindularik XII. Basaburu BTT proban lehiatuko dira.
Igandea. 09:00. Basaburu, Nafarroan.

TRIATLOIA
GORLIZ BADIAKO TRIATLOIA
Zumeatarrak taldeko Aimar Sukuntzak Gorliz Badiako proban parte hartuko du.
Igandea. 10:00. Gorliz, Bizkaian.

ELKARTASUN MARATOIA
Garun-paralisiaren aurkako elkartasun maratoia egingo dute.
Larunbata. 10:00. Loidi Barren pil.



'Zaldi lasterketak Arroyo de la Luz-en'. ALAZNE SAROBE



'Oporretako bizipoza kalea baino zabalagoa!'. PILI BERMEJO



'Chefchaouen'. AMAIA ZULAIKA

Txintxarri

TXINTXARRI aldizkariko Aste Santuko argazki lehiaketak badu irabazlea. Alazne Saroberen *Zaldi lasterketak Arroyo de la Luz-en* argazkiak eraman du saria.

Lasarteoriatarrek hamar argazki aurkeztu zituzten TXINTXARRI aldizkariko webguneko lehiaketara. Maiatzaren 2tik 10era arte izan dute irakurleek boza emateko aukera. Ugariak izan dira argazkiak jasotako babes bozak.

Zaldi lasterketak Arroyo de la Luz-en izan da garaile. Extremadurako herrixka honetako irudiak 101 boza jaso ditu. Bigarren sailkatuak Pili Bermejoren *Oporretako bizipoza kalea baino zabalagoa!*, 40 boz gutxiago jaso ditu, 61. Amaia Zulaikaren *Chefchaouen* izan da hirugarren postuan, 54 bozekin.

Alazne Sarobek larunbata honetan gozatuko du lehiaketako sariaz, Udaberriko bertso saiorako bi sarrera.

Alazne Sarobe, argazki lehiaketako irabazle



ZORIONAK! ZUETAZ HARRO!!

Gure ingeleseko FIRST eta ADVANCED ikasle guztiek gainditu duzue



Tel: 943363106
Goikale 12, behea,
www.zitek-akademia.com
info@zitek-akademia.com

INGELESA
30 ORDU

- Ekainaren 3tik 21era
- Uztailaren 1etik 24ra

MEKANOGRAFIA:
30 ORDU
MEKANOGRAFIA + INFORMATIKA:
37 ORDU

- Ekainaren 3tik 21era
- Uztailaren 1etik 24ra

IKASKETA TEKNIKAK
22 ORDU

- Ekainaren 3tik 21era
- Abuztuaren 20tik 31ra

ERREPASO KLASAK ETA IKASTURTE BERRIAREN PRESTAKETA

Uztaila eta/edo abuztua

maiatzean izena eman eta %10eko deskontua izango duzu



Erakusketan ditugun sabai-lanparak
LIKIDAZIOAN ditugu!

Zatoz gure erakusketa ikustera!

600 857 586 | www.electricidadarregui.com | Kale Nagusia 39 LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel: 943 37 25 21